

HASIERAKOA

Pirinioetako bi aldeetan 686 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, euskal herritar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politikoa barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsialetik eratorzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok, gure borondatearen gainetik ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerriak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Aquitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da euskal herritarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean, adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua edo Ipar Euskal Herrian 1999. urtean Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugarri esanguratsua izan zen.

1999an sortu zen Udalbiltza eta, 1200 hautetsi baino gehiagoren eta 686 udalerriren babesarekin du gaur gaurkoz.

Udalbiltzaren sorrerako irizipideak honako hauek dira:


- 1.-Euskal Herria nazio dela aldarrikatu.
- 2.-Euskal Herriko egitura politikoa eraikitzen lagundu.
- 3.-Nazio eraikuntza bultzatu.
- 4.-Herrialde guztietako udalerrien artean harremanak sendotzen lagundu hainbat esparrutan.
- 5.-Euskal Herria berezko nazio eta desberdindua dela adierazi nazioartean.

ADIERAZTEN DUGU:

1.- Villabonako udal gobernu hau Udalbiltzako kide den heinean, bat egiten du hemen aipaturiko irizpideekin. Erabaki hau, 2010eko irailaren 15eko ez ohiko osoko bilkurak horrela onartu zuen, "Bai Udalbiltzari, bai Euskal Herriari" mozioa onartuz. Gaur, 2010eko erabakia berresten dugu.

2.- Udalbiltzaren gomendioei jarraiki, euskal sinboloen erabilera bultzatuko dugu. Eremu instituzionalari dagokionez, Euskal Herriaren izatea aintzat hartzen duten bulego-paperak, seinalizazioa eta irudi korporatiboa sustatuko ditu udaletxean. Era berean, behar diren baliabideak jarriko ditugu herritarren esku, haien nortasun nazionala agerian eta modu publikoan adieraz dezaten hala nahi badute. Beraz, garena eta sentitzen duguna ikurren bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori, horretarako kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan euskal ikurrak jarri.

3.- "Euskal Herritarrak gara" izeneko lan ildoari jarraiki, urrats praktikoetara egingo dugu jauzia, Euskal Herriaren eta euskal herritartasunaren errekonozimendua lortzeko. Bide honetan, kaleetako paisaiak gure errealitate nazionalaren adierazgarri izatea bultzatuko dugu, Euskal Herria gure herri eta hirietako mapan kokatzeko. Honela, Udalbiltzak garatu berri duen nortasun korporatibo nazionala zabaltzen lagunduko dugu, gure herriko sarreretan, jarriko ditugun panelen bidez.



4.- Gure herriko historiari lehialtasunez, Amasa-Villabona izena jarriko dugu panel hauetan. 1619. urtean, bi herriek bat egitea erabaki baitzuten, udalerriari gaur egun erabiltzen dugun armarrria bi herrien artean emanaz.

Amasa-Villabonan, 2015eko urtarrilaren 14an